

Morrisonen musikarekin Ainsley Hamille abeslariak egin du bere-, sormenaren beharraz idazten du. Pandemiak sorturiko krisialdian idazketan babesteko ez ezik, gobernu kontserbadoreak sustatutako propagandaren aurka egiteko idatziz zuen poema hori, zehazki pandemia garaian zabaldu zuten posterrean emakumezko ballet dantzari gazte bati beste ogibide bat aukeratzeko eskatzen zitzaio- la eta -hori bai, teknologiarekin zerikusia zuen lanbide bat-.

Zailtasunak zailtasun, sorkun- tza lanetatik bizi da Mac an Tuair- neir. Berak dioenez, *patchwork* moduko zerbait da bere lan prak- tika: itzulpen lanak -Lawrence Schimelen haur literatura itzuli du gaelikora-, musika -*Speac- tram*, gaelikoz plazaratutako au- rrenengo pop diskoa berea da-, dibulgazio lana -esate baterako, ondu dituen poema-bideoak- eta poesia landu izan ditu.

Aktore gisa ere egin du lan, Robbie Jones eta Elspeth Turne- rrek zuzendutako *Marram* film laburrean (2023) parte hartuz, non amaren etxean elkarren arte- an oso bestelakoak diren bi seme ditugun; bata tradizioari atxikia, bestea modernitateari. Filmean amak dio garai batean irla ez ze- goela periferian, komertzioaren erdigunean zegoela. Erresisten-

Paradisutik egotzia

Nagore Fernandez

Bekatua izena jarri dio Goiatz Labandibarrek bere estreinako elebe- rri laburrari, hori baita obra harilkatzeko idazleak dara- bilen motibo nagusia: 36 urteko emakume bat da protagonista, Garazi, eta, parranda zoro baten ostean, bera baino 17 urte gaztea- goa den mutil baten ohean esna- tuko da, ez bere ohiko bikoteki- dearen alboan. Gertatutakoaz oharturik, eta insomnioak astin- durik, bizitzaz eta bere (eta bere ingurukoen) erabakiez hausna- rrean hasiko da, eta, etika-jario horrekin, egungo gizartearen, eta, batik bat, belaunaldi oso ba- ten erretratua osatuko du.

Hirugarren pertsonako narra- tzailearen aldeko hautua egin du Labandibarrek bere lehen nobela honetan, Garazi protagonistaren barne-munduan sartu, eta bere inkontzientearen ahots bihurtze- ko. Izan ere, barne-bakarriketa bat eraikitzen da orriz orri, eta le- hen pertsonako diskurtso bat es-



'Bekatua'

Idazlea: Goiatz Labandibar.
Argitaletxea: Erein.

pero nuen arren, asko gustatu zait autorearen erabakia. Batetik, hausnarketa-multzo mardul bat dakarren nobela bat izanda, nire ustez, hirugarren pertsonako ahots horrek leundu egin ditu fikzioko ekintzen eta ez-fikzioz- ko hausnarketen artean dauden ertzak, eta gardendu egin du bien arteko marra hori. Hala, idazleak apetatsu egin du salto saiakeratik hurbilago dagoen diskurtso fikziora, eta alderantziz. Eta neu ere, irakurle bezala, ohartu barik sartu naiz joko berean, oso modu naturalean eta bizian, gainera, noiz magma etiko horretan haus- narrean, noiz fikzioan igeri. Bes- tetik, narratzailearen ahotsak protagonista distantzia batetik (auto)epaitzea ahalbidetu dio La- bandibarri, eta epaia are sinesga- rriagoa egiteaz gain, iruditu zait hirugarren pertsonak mesede egin diola gertaerek eta ekintzek dakarten tonu komikoari. Horra hor nobelaren indargunea.

Badago, ordea, txanponaren beste aldean, horrenbeste kon- bentzitu ez nauen alderdi bat. Asko dira idazle on bat, ezinbes- tean, irakurle on bat ere izan be- har dela adierazi eta praktikara eramanez idazleak, eta naba- ria da Labandibarrek ere men

egiten diola uste horri. Gustatu zaizkit dakartzan aipamenak eta idazleak, esanguratsuak dira tes- tuan; oster, ez beti, baina, zen- baitetan, ekartzeko moduak be- rak huts egin dit; gehiegi bortxa- tu dituen irudipena izan dut, testutik atera naute, eta, fikzio- tik, testuinguru akademikoago- tara eraman. Hori gertatu zait, esaterako, Sandro Pennaren hi- tzekin. Esango nuke *Amez* ipuin liburuan hobeto landu duela tes- tuartekotasunaren alderdia, oraingoan, aldiz, pare batean idazleak besteetan erakutsi duen abilezia hori faltan izan dut.

Alderdi hori kenduta, gustatu egin zait Goiatz Labandibarren apustua: nobela laburrak, trans- zendentala izan gabe, baina, egungo gizarte heteropatriarka- lak eta kapitalistak inposatzen digun bizi-estiloaz eta alienazio- az pentsatzeko parada eskainiko dio irakurleari, ondo landutako bidaia narratologiko dibertigarri batean laguntzeaz batera. Horre- tarako, komediatik oso hurbile- ko tonu batez mintzo zaigu idaz- lea, zeinak, ironia baliatuz, etengabe egiten diren digresio existentsial horien karga eta seriotasuna leuntzea lortzen duen.